

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 2koa. Onestea ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren, zerga berezien, balio erantsiaren gaineko zergaren, aseguru primen gaineko zergaren eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak aldatzea**

Ekonomia Itunak 21., 26., 32. eta 33. artikuluetan ezartzen du ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga (kasu jakinetan), balio erantsiaren gaineko zerga, zerga bereziak eta aseguru primen gaineko zerga zerga itunduak direla eta Estatuak aldi bakoitzean xedatzen dituen funtsezko arau substantibo eta formal berak aplikatu behar zaizkiela.

Abenduaren 22ko 35/2020 Legegintzako Errege Dekretuak, turismoaren, ostalaritzaren eta merkataritzaren sektoreari eta zerga arloari laguntzeko premiazko neurriei buruzkoak, balio erantsiaren gaineko zergan aldaketak sartzen ditu, besteak beste.

Lehenik eta behin, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztuko eragiketa arruntengatik sortutako urteko kuota ehuneko hogeiei murrizten du 2020an, eta hogeita hamabostearaino turismo, ostalaritza eta merkataritza sektorearekin lotutako jardueretarako. Murriztapen horiek 2021eko ekitaldiko lehen hiruhileko kuotari dagokion konturako sarrera kalkulatzeko ere aplikatuko dira, eta, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztuaren eragiketa arruntengatik sortutako kuota kalkulatzeko, ez dira jarduera aldi gisa zenbatuko 2020ko lehen sei hilekoan alarma egoera indarrean egon zen egunak, ez eta 2020ko bigarren sei hilekoan, alarma egoera indarrean egon edo ez, SARS-CoV-2 birusaren ondoriozko egoera epidemiologikoaren garapena zuzentzeko agintari eskudunek ezarritako neurriak direla eta jarduera ekonomikoa eten egin behar izan zen egunak.

Bigarrenik, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko zero tasa aplikatuko zaie txertoen eta COVID-19aren in vitro diagnostikoa egiteko produktu sanitarioen erkidego barruko entregiei, inportazioei eta erosketei, 2022ko abenduaren 31ra arteko ondorioekin. Era berean, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko zero tasa aplikatuko zaie produktu horien garraio, biltegiatze eta banaketa zerbitzuei. Aurrekoarekin batera, doikuntza bat egiten da aipatutako eragiketei aplikatu beharreko baliokidetasun errekarigoko tasan.

Azkenik, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztuari eta nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziari uko egiteko lege ezartzen den hiru urteko nahitaezko lotura ezabatzen da, eta zergadunek 2022ko ekitaldian aplikatu ahal izango dituzte berriro araubide horiek.

Bestalde, 2021erako Estatu Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak zenbait zerga neurri hartzen ditu, eta, ondorioz, zerga premiazko araugintzako dekretu honetan sartu dira ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari, zerga bereziei, balio erantsiaren gaineko zergari eta aseguru primen gaineko zergari buruzkoak.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari dagokionez, Europako Esparru Ekonomikoari buruzko akordioan ezarritakora egokitzen da kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako interesengatik eta gainerako etekinengatik salbuespena, bai eta establezimendu iraunkorrik gabe lortutako ondasun higigarrietatik eratorritako ondare irabazienengatik ere, eta, beraz, akordio horretan parte hartzen duten estatuak salbuespena baliatu ahal izango dute, Europar Batasuneko estatu kideek bezala. Horrez gain, aldatu egiten da Espainiako lurraldean

egoiliarren eskumendeko sozietateek Europako Esparru Ekonomikoa osatzen duten beste estatu batzuetan dituzten sozietate nagusiei edo horien establezimendu iraunkorrei banatutako mozkinen buruzko salbuespena, eta kendu egiten da salbuespena eskuratzeko aukera baldin eta partaidetzaren eskuratzeko balioa 20 milioi eurotik gorakoa bada. Baldintza gisa, gutxienez ehuneko 5eko partaidetza zuzena eta zeharkakoa eskatuko da, betiere zergaren araudian ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira.

Balio erantsiaren gaineko zergan, 2021eko zergaldirako, luzatu egiten dira araubide erraztua eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza araubidea aplikatzeko muga kuantitatiboak, eta aldatu egiten da edulkoratzaile erantsiak dituzten edariei aplikatu beharreko zerga tasa, zeinak ehuneko 21ean zergapetuko baitira.

Aseguru primen gaineko zergan, karga tasa ehuneko 6tik ehuneko 8ra igo da.

Zerga berezietan, eta elektrizitatearen gaineko zergari dagokionez, bi salbuespen berri sartzen dira: trenbideko garraioan hornitutako edo kontsumitutako energia kantitateari aplikatu beharreko zerga oinarrian ehuneko 100 murrizketa ezartzen da, eta zehazten da trenbideko garraiorako zerga tasa ezin dela 0,5 eurotik beherakoa izan.

Azkenik, jarduera ekonomikoen gaineko zergan epigrafe edo talde berriak sortzen dira, orain arte sailkapen espezifikorik ez zuten hornidura orokorrak (elektrizitatea eta gasa) merkaturatzeko jarduerak berariaz sailkatzeko.

Gainera, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak zergen berandutze interesari egiten dio erreferentzia.

Amaitzeko, COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi egoerak epe jakin batzuk etetea edo luzatzea eragin duenez, komenigarria izan daiteke epe bereziak ezartzea 2021eko lehen sei hilekoan zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa emateko betebeharra betetzeko.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hau

## XEDATZEN DUT

### **1. artikulua. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga**

Aldaketa hauek egiten dira ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauan, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin:

Bat. 14. artikuluko 1. apartatuko b) eta g) letrak aldatzen dira eta honela gelditzen dira idatzita:

“b) Norberaren kapitalak hirugarrenei lagata lortzen diren interesak eta gainerako etekinak (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko 35. artikuluan aipatzen direnak), bai eta establezimendu iraunkorrik gabe lortutako ondasun higigarrietatik eratorritako ondare irabaziak ere, Europar Batasuneko beste estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu bateko egoiliarrek edo Europar Batasuneko beste estatu kide batean edo Esparru Ekonomikoko beste estatu batean dauden horien establezimendu iraunkorrek lortutakoak.

Europar Batasuneko estatu kide ez diren Europako Esparru Ekonomikoko estatuen kasuan, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta zerga informazioaren truke eraginkorra badago, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren hamabosgarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan aurreikusitako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko ondoko inguruabarretan dauden erakundeen akzioak, partaidetzak edo bestelako eskubideak eskualdatuta lortzen diren ondare irabaziei:

1. Erakundearen aktiboan batez ere Euskadiko ondasun higiezinak badaude, zuzenean edo zeharka.

2. Zergaduna pertsona fisikoa izanik, eskualdaketa egin aurreko hamabi hiletan zehar noiz-bait erakunde baten kapitalean edo ondarean ehuneko 25eko partaidetza eduki badu, edo hortik gorakoa, zuzenean zein zeharka.

3. Zergaduna egoiliar ez den erakundea izanez gero, eskualdaketak ez baditu betetzen Sozietateen gaineko Zergaren Legeak 21. artikuluan ezartzen duen salbuespena aplikatzeko baldintzak”:

“g) Espainiako lurraldean egoiliartutako eskumendeko sozietateek Batasuneko beste estatu batean egoiliartutako sozietate nagusiei edo hauek Batasuneko beste estatu batzuetan dituzten establezimendu iraunkorrei banatzen dizkieten mozkinak, ondokoak gertatuz gero:

1. Bi sozietateek Batasuneko estatuetan erakunde juridikoen mozkinak kargatzen dituzten zergetako baten kargapean egotea, eta hartatik salbuetsi gabe (Kontseiluaren 2011ko ekainaren 30eko 2011/96/UE Zuzentaraua, Batasuneko estatu desberdinetan ari diren sozietate nagusiei eta eskumendekoei aplikatu beharreko araubideari buruzkoa, 2.c) artikulua), eta establezimendu iraunkorrak ezarrita dauden estatuan zergapean egotea eta salbuetsi gabe.

2. Mozkinaren banaketa ez izatea eskumendeko sozietatearen likidazioaren ondorioa.

3. Bi sozietateek edukitzea Kontseiluaren 2011ko ekainaren 30eko 2011/96/UE Zuzentaruaren eranskinean ezartzen diren formatako bat (zuzentarau horretan Batasuneko estatu desberdinetan ari diren sozietate nagusi eta eskumendekoei aplikatu beharreko araubidea ezarri zen; Kontseiluaren 2014ko uztailaren 8ko 2014/86/UE Zuzentaruak aldatu zuen).

Sozietate nagusitzat hartuko dira beste baten kapitalean, zuzenean zein zeharka, gutxienez ehuneko 5eko partaidetza dutenak. Beste sozietate nagusiaren eskumendekoa izango da. Banatzen den mozkina eska daitekeen egunaren aurreko urte osoan eduki behar da partaidetza edo, bestela, urtebete pasatu arte eutsi behar zaio.

Epea zenbatzeko kontuan hartuko da, halaber, partaidetza hori Merkataritza Kodeko 42. artikuluan sozietate talde bereko kide izateko aipatzen diren inguruabarrak betetzen dituzten beste erakunde batzuek etenik gabe eduki duten aldia, egoitza non duten eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra zein den kontuan hartu gabe. Kasu horretan, ordaindutako zerga kuota itzuli egingo da epe hori igaro ondoren.

Egoitza non dagoen Batasuneko kide den estatuko legeriaren arabera zehaztuko da, zergapetze bikoitzaren aurkako itunetan ezarritakoa gorabehera.

Aurrean ezarritakoa gorabehera, adierazi ahal izango da, elkarrekikotasuna baldintza jarrita, letra honetan ezarritakoa ondokoei ere aplikatu ahal izango zaiela: zuzentaruaren eranskinean ezarritako forma juridikoetako bat ez duten eskumendeko sozietateei eta Espainiako egoiliar den eskumendeko sozietate batek ehuneko 5etik gorako partaidetza duen sozietate nagusiari emandako dibidenduei, gainerako baldintzak betez gero.

Letra honetan ezarritakoa ez da aplikatuko sozietate nagusiaren boto eskubide gehienak, zuzenean zein zeharka, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren hamabosgarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan aurreikusitakoaren arabera zerga arloko informazio truke eraginkorra duten Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatuetako egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo juridikoek badituzte, salbu eta haren eraketa eta operatiboa baliozko arrazoi ekonomikoen eta enpresa arrazoi substantiboaren ondorio badira.

Letra honetan xedatutakoa Espainiako lurraldean egoiliartutako eskumendeko sozietateek Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batean egoiliartutako sozietate nagusiei edo hauek Batasuneko beste estatu batzuetan dituzten establezimendu iraunkorrei banatzen dizkieten mozkinen ere aplikatuko zaie, baldintza hauek betez gero:

1. Sozietate nagusiak egoitza daukan Europako Esparru Ekonomikoko estatuarekin zerga informazioaren truke eraginkorra egotea, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak hamabosgarren xedapen gehigarriko 3. apartatuan ezartzen duenarekin bat etorritz.

2. Bi sozietateak Batasuneko estatuetan erakunde juridikoen mozkinak kargatzen dituzten zergen antzeko baten kargapean egotea eta hartatik salbuetsita ez egotea (Kontseiluaren 2011ko ekainaren 30eko 2011/96/UE Zuzentaraua, 2.c) artikulua; Batasuneko estatu desberdinetan ari diren sozietate nagusi eta eskumendekoei aplikatu beharreko araubideari buruzkoa), eta establezimendu iraunkorrak ezarrita dauden estatuan zergapean egotea, eta salbuetsi gabe.

3. Europako Esparru Ekonomikoko estatu bateko egoiliar den sozietate nagusiaren forma Kontseiluaren 2011ko ekainaren 30eko 2011/96/UE Zuzentarauaren eranskinean ezarritakoetako baten antzekoa izatea (zuzentarau horretan Batasuneko estatu desberdinetan ari diren sozietate nagusi eta eskumendekoei aplikatu beharreko araubidea ezarri zen).

4. Letra honetan ezarritako gainerako betekizun guztiak betetzea”

Bi. Xedapen iragankor bat gehitzen da, bigarrena izango dena, eta oraingo xedapen iragankor bakarria lehena izango da aurrerantzean. Honela geratzen da idatzita:

“Bigarren xedapen iragankorra. 14.1.g artikulua salbuespenaren araubide iragankorra.

14. artikulua 1. apartatuaren g) letran aipatzen den salbuespena 2021ean, 2022an, 2023an, 2024an eta 2025ean aplikatuko zaie 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako partaidetzei, haien eskuratze balioa 20 milioi eurotik gorakoa bada; ez da beharrezkoa izango partaidetza zuzena edo zeharkakoa kapitalaren ehuneko 5era iristea, betiere artikulua horretan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira”

## **2. artikulua. Balio erantsiaren gaineko zerga**

Lehenengoa. Balio erantsiaren gaineko zergaren zer zerga tasa aplikatuko zaien SARS-CoV-2aren eraginei aurre egiteko beharrezkoak diren ondasunen barne entzegei, inportazioei eta erkidego barruko erosketek, baita baliokidetasun errekarquaren araubide bereziaren ondorioetarako ere.

Bat. 2020ko abenduaren 24tik 2022ko abenduaren 31ra arteko ondorioekin, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko tasa aplikatuko zaie honako hauei:

a) SARS-CoV-2aren in vitro diagnostikorako osasun produktuen entregak, inportazioak eta eskuratzeak, honako hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak: in vitro diagnostikorako osasun produktuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1998ko urriaren 27ko 98/79/EE Zuzentaraua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko apirilaren 5eko 2017/746 (EB) Erregelamendua, in vitro diagnostikorako osasun produktuei buruzkoa, indargabetzen dituen 98/79/EE Zuzentaraua, Batzordearen 2010/227/EB Erabakia eta irailaren 29ko 1662/2000 Errege Dekretua, in vitro diagnostikoetarako osasun produktuei buruzkoa.

b) Europako Batzordeak baimendutako SARS-CoV-2aren aurkako txertoak entregatzea.

c) Aurreko a) eta b) letretan aurreikusitako erkidego barruko entrega, inportazio eta eskuratzeekin zerikusia duten garraio, biltegiatze eta banaketa zerbitzuak.

Eragiketa horiek eragiketa salbuetsi gisa dokumentatuko dira fakturan.

Bi. Aurreko apartatuan aipatutako denbora tartean, apartatu horretan aipatutako ondasunen entzegei aplikatu beharreko baliokidetasun errekarquaren tasa ehuneko 0 izango da.

Bigarrena. Hainbat aldaketa egiten dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuan, eta 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:

Bat. Aldatu egiten da 70. artikuluko bigarren apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

“Bi. Era berean, ondoren adieraziko diren zerbitzuak zergaren aplikazio lurraldean emantzat joko dira, baldin eta, zerbitzu horiei aplikatu dakizkiekeen kopapen arauari jarraituta, ulertzen bada ez direla eman erkidegoan, Kanarrietan, Ceutan edo Melillan, baina horien erabilera edo ustiapena lurralde horretan gertatu bada:

1. Arau honetako 69. artikuluko bigarren apartatua aipatzen direnak, baldin eta hartzailea enpresaburua edo profesionala (hala diharduena) bada.

2. Besteren izenean eta kontura egiten diren bitartekaritza zerbitzuak, hartzailea enpresaburua edo profesionala (hala diharduena) bada.

3. Garraiobideen errentamendua.

4. Baliabide elektronikoen bitartez egiten direnak, eta telekomunikazio, irrati eta telebista zerbitzuak”

Bi. Aldatu egiten da 91. artikuluaen bat.1 apartatuaren 1. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

“1. Beren ezaugarriak, aplikazioak, osagaiak, prestaketa eta kontserbazio egoera direla eta gizakien edo animalien elikadurarako modu egoki eta ohikoan erabil daitezkeen substantziak edo produktuak, haien jatorria edozein dela ere, Elikadura Kodean eta hura garatzeko emandako xedapenetan ezarritakoaren arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpo geratzen dira honako hauek:

a) Edari alkoholduak.

Edari alkoholduak hartzen da gizakiek irentsita kontsumitzeko egokia den eta etil alkohola duen likido oro.

b) Azukre edo edulkoratzaile erantsiak dituzten edari freskagarriak, zukuak eta gaseosoak.

Zenbaki honen ondorioetarako, tabakoa ez da elikagaitzat hartuko, ez eta entregatu, Europar Batasunaren barruan eskuratu edo inportatu diren egoera berean gizakiek edo animaliek kontsumitu ezin dituzten substantziak ere”

Hiru. Hamalagarren xedapen iragankorra aldatzen da eta honela geratzen da idatzita:

“Hamalagarrena. Araubide erraztua eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezia aplikatzeko mugak 2016tik 2021era.

2016ko, 2017ko, 2018ko, 2019ko, 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako, arau honetako 122. artikuluko bigarren apartatuko 2. eta 3. zenbakietako lehenengo marran eta 124. artikuluko bigarren apartatuko 6. zenbakian ezartzen den magnitudea, 150.000 euro, hemendik aurrera 250.000 euro izango da”

### **3. artikulua. Aseguru primen gaineko zerga**

2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldatu egiten da Aseguru Primen gaineko Zergari buruzko irailaren 30eko 12/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 11. artikuluaen 1. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

“1. Ehuneko 8ko karga tasa aplikatuko da zergaren bidez”

#### 4. artikulua. Zerga bereziak

Lehenengoa. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko 97. artikuluari 8. apartatua eransten zaio, eta honela geratzen da idatzita:

“8. Ontzietan kontsumitutako energia elektrikoa, ontzian bertan sortutakoa bada”

Bigarrena. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartzen dira Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuan:

Bat. 97. artikuluari 9. apartatua gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

“9. Hornitutako energia elektrikoa, soberako ordu energiarekin konpentsatzen dena, konpentsatu beharreko soberakinak dituen autokontsumo modalitatean, energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera”

Bi. 101. artikuluari 3. apartatua gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

“3. Likidazio oinarria kalkulatzeko, zerga oinarriari ehuneko 100eko murrizketa egingo zaio, hala badagokio, eta murrizketa hori trenbideko garraioan hornitutako edo kontsumitutako energia elektrikoaren kantitateari aplikatuko zaio, betiere erregelamenduz ezarritako eskakizunak eta baldintzak betetzen badira”

Hiru. Aldatu egiten da 102. artikulua 2. apartatuko a) letra, eta honela geratzen da idatzita:

“a) 0,5 euro megawatt-ordu (MWh), hornitutako edo kontsumitutako elektrizitatea industria erabileretarako, portuetan atrakatutako aisialdirako ontzi pribatuak ez diren ontzietarako edo trenbideko garraiorako erabiltzen bada”

#### 5. artikulua. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretua, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak eta horien aplikaziorako jarraibideak onesten dituena

Aldaketa hauek egiten dira jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifetan eta jarraibideetan, eta eragina izango dute 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan:

Bat. Tarifen lehenengo ataleko 15. multzoaren titulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“15. multzoa. Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta ur beroa ekoiztu, garraiatu, banatu eta merkaturatzea”

Bi. Tarifen lehenengo ataleko 15. multzoaren 151. taldearen titulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“151. multzoa. Energia elektrikoa ekoiztu, garraiatu, banatu eta merkaturatzea”

Hiru. Tarifen lehenengo ataleko 15. multzoko 151. taldean 151.6 epigrafe berria gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“151.6 epigrafea. Energia elektrikoa merkaturatzea.

Kuota.

Gutxienerako udal kuota:

1.000 abonatu edo zatikiko: 62,20 euro.

Probintziako kuota:

1.000 abonatu edo zatikiko: 137,48 euro.

Estatuko kuota:

1.000 abonatu edo zatikiko: 137,48 euro”

Lau. Tarifen lehenengo ataleko 15. multzoaren 152. taldearen titulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“152. taldea. Gasa ekoiztu, banatu eta merkaturatzea.

152.1. epigrafea. Gasa ekoiztu eta banatzea.

Kuota:

Kw bakoitzeko: 15,86 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartzen da gasa banatzeko sareak instalatzea.

152.2. epigrafea. Gasa merkaturatzea.

Kuota.

Gutxieneko udal kuota:

1.000 abonatu edo zatikiko: 62,20 euro.

Probintziako kuota:

1.000 abonatu edo zatikiko: 137,48 euro.

Estatuko kuota:

1.000 abonatu edo zatikiko: 137,48 euro”

## 6. artikulua. Berandutze interesak

2021eko abenduaren 31 arteko ondorioekin, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 26. artikulua 6. apartatuan aipatzen den berandutze interesa ehuneko 3,75 izango da.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztuko eragiketa arruntengatik sortutako kuota murriztea 2020an.

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasiboek, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztuaren araubidea onartzen duen urtarrilaren 14ko 1/2020 Foru Dekretuaren II. eranskinean jasotako enpresa eta lanbide jarduerak gauzatzen badituzte, eta araubide berezi erraztuari atxikita badaude, aipatutako araubide bereziaren urteko kuota kalkulatzeko, sortutako kuoten zenbatekoa ehuneko 20 murriztu ahal izango dute, jarduera horiei dagozkien eragiketa arruntengatik, ekitaldi horretan.

Hala ere, murrizketa hori ehuneko 35koa izango da honako jarduera hauetarako:

JEZA	EKONOMIA JARDUERA
653.2	Txikizkako merkataritza: material eta aparatu elektrikoak, elektronikoak eta elektratresnak, argindarra ez beste energia mota batez eragiten diren etxe erabilerrako bestelako aparatuak eta sukaldeko altzariak.
653.4 eta 5	Txikizkako merkataritza: eraikuntzako materialak, saneamenduko gaiak eta altzariak, ateak, leihoak, pertsianak eta abar.
654.2	Lurreko ibilgailuentzako osagarri eta ordezkio piezen txikizkako merkataritza.
654.5	Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxeko aparatuak, bulegoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).
654.6	Txikizkako merkataritza: ibilgailu mota guztietarako gurpilazalak, bandak edo bandajeak eta aire ganberak.
659.3	659.3 epigrafean matrikulaturiko txikizkako merkataritza, negatiboak eta inpresionatutako argazkigintza materiala biltzeagatik ondoren inoren laborategietan prozesatzeko, eta kopiak eta argazki handituak emateagatik.

JEZA	EKONOMIA JARDUERA
663.1	Oreki frijituak (estaliak edo estalgabeak nahiz beteak edo betegabeak), patata frijituak, janaurrekoen, fruitu lehorren, gozokiak, txokolatzeko prestakinen eta edari freskagarrien merkataritzan soilik diharduen merkataritzako establezimendu iraunkorretik kanpoko txikizkako merkataritza, norberaren instalazioan edo ibilgailuan berezko txurrogintzako produktu propioak eta patata frijituak egiteko ahalmena izanik.
671.4	Bi sardexkako jatetxeak.
671.5	Sardexka bakarrekoko jatetxeak.
672.1, 2 eta 3	Kafetegiak.
673.1	Kategoria bereziko kafetegi eta tabernak.
673.2	Beste kafetegi eta taberna batzuk.
675	Kiosko, etxola, txosna edo antzeko beste lokal batzuetan ematen diren zerbitzuak.
676	Txokolategi, izozkitegi eta hortxategietan ematen diren zerbitzuak.
681	Izar bakarrekoko edo biko hotel eta moteletan ematen den ostatu zerbitzua.
682	Ostatuetan ematen den ostatu zerbitzua.
683	Apopilo etxeetan ematen den ostatu zerbitzua.
721.1 eta 3	Hiriko talde garraioa eta errepide bidezko bidaiarien garraioa.

2. Aurreko zenbakian aipatutako enpresaburuek eta profesionalak ehuneko 20 edo 35 murriztu ahal izango dituzte urtarrilaren 26ko 2/2021 Foru Dekretuaren II. eranskineko balio erantsiaren gaineko zergan indizeak eta moduluak aplikatzeko jarraibideetako 3. zenbakian adierazitako ehunekoak, 2021eko ekitaldiko lehen hiruhileko kuotari dagokion konturako sarrera kalkulatzeko.

Bigarrena. 2020an ezarritako alarma egoeren eragina, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztuaren eragiketa arruntengatik aldi horretan sortutako kuotaren kalkuluan.

Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztua 2020. urterako arautzen duen urtarrilaren 14ko 1/2020 Foru Dekretuaren II. eranskineko balio erantsiaren gaineko zergan indizeak edo moduluak aplikatzeko jarraibideetako 4. eta 5. zenbakietan aurreikusitako ondorioetarako, ez dira inola ere zenbatuko jarduera gauzatu den alditzat 2020ko lehen sei hilekoko egunak, badin eta alarma egoera indarrean bazegoen edo, alarma egoera indarrean egon ala ez, SARS-CoV-2 birusaren ondoriozko egoera epidemiologikoaren bilakaera zuzentzeko agintaritzak eskudunak hartutako neurrien ondorioz jarduera ekonomikoa gauzatu ezin izan bazen.

Zehazki, "Soldatapeko langileak", "Soldatarik gabeko langileak" eta "Enplegatuek" moduluak kalkulatzeko, ez dira lan egindako ordutzat hartuko aurreko paragrafoan aipatutako egunei dagozkienak, eta "Egindako distantzia" eta "Energia elektrikoaren kontsumoa" moduluak kalkulatzeko, ez dira zenbatuko lehen paragrafoan aipatutako egunei dagozkien egindako kilometroak, ez eta kilowatt/ordu proportzionalak ere.

Hirugarrena. Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztuari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzarenari uko egitearen denbora ondorioak mugatzea 2020ko eta 2021eko ekitaldietan.

Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztuari eta/edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzakoari uko egin dioten subjektu pasiboek berriz ere zergak ordaindu ahal izango dituzte horietan 2021eko edo 2022ko ekitaldian, betiere hura aplikatzeko baldintzak betetzen badituzte eta araubide horietan zergapetzeari uko egitea baliogabetzen badute balio erantsiaren gaineko zergaren araubidea onesten duen apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren 33. artikuluan aurreikusitako epean edo, hala badagokio, 2021eko edo 2022ko lehen hiruhilekoan, apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren 39. artikuluan aipatutako konturako sarrera epearen barruan aurkeztuta, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztua aplikatuta.

Laugarrena. Zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa aurkezteko epe bereziak.

Zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazio betebeharrak berrien garapena onesten duen azaroaren 3ko 35/2020 Foru Dekretuaren xedapen gehigarrian eta xedapen iragankor bakarrean aurreikusitakoa gorabehera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuari baimena ematen zaio foru agindu bidez epe bereziak ezartzeko Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren hogeita laugarren eta hogeita bosgarren xedapen gehigarrietan aipatzen diren informazio betebeharrak betetzeko, baldin eta epe horiek 2021eko lehenengo seihilekoan amaitzen badira, betebeharrak hori betetzeko ezarritako epe orokorren arabera.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta artikuluetan ezartzen diren ondorioak izango ditu.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio zerga premiazko araugintzako dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 2a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**